

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 63. alea

DATA: 2026/02/06

GUREAN

ARANBERRI ETA KORTAZAR... TXAPELDUNAK!!

HERRI AMETSA TALAIA. Eguraldi txarrak behartu gintuen parte hartzaileei astebeteko atzerapena proposatzera eta azkenean, pasa den igandean zortzigarren edizioa egin zen. Giro ederra, indarrez betetakoa eta hunkigarria aurkitu zuten ikastolara hurbildu ziren guztiek. Aurtengo garaileak, maila absolutoan, Amets Aranberri eta Oihana Kortazar izan ziren. Horrez gain, Herri Ametsa saria Andoni Uzkiarik jaso zuen. Une hunkarria izan zen, duela gutxi zendu den gure ikasle ohia izandako Eñaut Elizalde altzatarri eskaini ziolako. Lehiak kanpoko partehartzaileek ere asko disfrutatu zuten igandean. Mendi martxa eta kros txikiaren helburua naturaz eta kirolaz disfrutatzea da eta aise bete zen.



GURE INGURUAN

ALTZAKO KALDEREROAK

NOIZ: OTSAILAK 8
NON: ALTZA



Altzara bueltan dira kaldereroak. OTSAILAREN 8an, 17:00etan, kaleak berriro beteko dituzte musikaz, kolorez eta jai-giro biziak. Etorri konpartsara, egin bat ekimenarekin eta izan Alzako Kaldereroen lehen urte historikoaren parte. Aurten berriro lanean ibili dira auzoan jaia berreskuratzeko, Donostiako ohitura errespetatuz eta auzo osoari izaera hurbila, herrikoia eta irekia emanez.

BAZENEKITEN?

IHOTEAK OSPATZEN DIRELA
ASTEBURU HONETAN OIARTZUNEN?



LARUNBATA, 7
9:00etatik aurrera auzoetan Kuestaziya poxpolinez jantzita
14:30 inguru bazkaria auzo bakoitzak bere elkartean
18:00 auzoetan ibilitako koadrilak plazan elkartuko dira
18:30 Ihote berberua. Ondoren, musika eta festa giroa kataxuloko txozna inguruan.

IGANDEA, 8
9:00 Diana txistulariekin
11:00 Beheko plazatik karroxa eta kalejira alaia
19:00 Intxixu, Basandre eta Sorginei agurra
Bukatzeke, suzko akerra.

**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:**
melvira@herriametsa.eus